**JARDUERA**

# BAKEAREN PUZZLEA

URTARRILAREN 30A
Indarkeria Ezaren eta Bakearen aldeko Eskola Eguna

### Funtsezko kontzeptuak

- ☐ Elkarmenpekotasuna
- ☐ Irudiak eta pertzepzioak
- ☐ Gizarte-justizia
- ☑ Gatazkak eta konponbidea
- ☐ Aldaketa eta etorkizuna

### Helburuak

- Indarkeria Ezaren eta Bakearen aldeko Eskola Eguna ospatzea (urtarrilaren 30a).
- Sormena sustatzea eta adierazpen plastikoko gaitasuna garatzen laguntzea.

### Ebaluazioa

- Parte-hartze eta gozamen maila.

### Beharrezko materialak

- 1. eranskina: Margotzeko puzzle-fitxak.

### Baliabideak

- Bideoa: *Qué bueno.* The Kids Band.



## 1. Bakearen barruan zer sartzen da eta zer ez

Gure ikasleei azaltzen diegu bakearen eguna ospatuko dugula eta, horretarako, marrazkiz betetako puzzle erraldoia egingo dugula. Puzzleko fitxak banatzen ditugu gure ikasleek margotu ditzaten.

Fitxak ertzetatik mozten dira elkarren artean ahokatu ahal izateko. Guztion artean bakoitza bere lekuan ipintzen dugu, puzzle erraldoi bat osatzeko. Hala ere lau pieza ezin dira ahokatu: obalatuak dira eta eszena negatiboak irudikatzen dituzte:

- Haur bat negarrez.
- Borroka bat.
- Munstro bat.
- Haur bat garrasi egiten.

Bakearekin bateragarri diren gauzei eta bake-espazio bat eraiki nahi badugu bertan lekurik ez duten gauzei buruz hitz egiten dugu haurrekin.

## 2. Bakearen aldeko ibilaldia

Indarkeria Ezaren eta Bakearen aldeko Eskola Egunaren jatorria Ghandik bere ideiak defendatzeko burututako ekintza baketsuaren oroimenean aurkitzen dugu. Horregatik, gatazkak konpontzeko modu bezala indarkeria-eza aldarrikatzeko bakearen aldeko ibilaldi batean parte hartzera gonbida ditzakegu ikasleak.

Puzzlearen oinarri gisa balio izan duten marrazkiak familiek edo geuk idatzitako bake-mezuekin osa ditzakegu, eta aldarrikapen-kartel moduan erakutsi edo paper jarraituan itsatsi ditzakegu mezu batekin batera, urtarrilaren 30ean bakearen aldeko ibilaldi batean erakutsi dezakegun pankarta erraldoi bat osatzeko.

Bukatzeko, gure ikasleekin The Kids Band-en Qué bueno bideoa parteka dezakegu. Bakearen eta elkarbizitza baketsuaren aldeko gonbidapena da, eta Indarkeria Ezaren eta Bakearen aldeko Eskola Eguna ospatzeko ibilaldian elkarrekin kanta dezakegu.

Ekitaldiaren inguruko argazkiak atera ditzakezue edo bideoa grabatu dezakezue ikastetxeko blogerako edo aldizkarirako albistea osatzeko.





The Kids Band.

1. **ERANSKINA** MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK





# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK





# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



# 1. ERANSKINA MARGOTZEKO PUZZLE-FITXAK



